

# PERTSONEN BEGIETATIK IKUSTEA, GIZARTEAREN BELARRIETATIK ENTZUTEA

Jesús Sarria abertzaleak, 1917an, 'Hermes' aldizkaria argitaratzen hasi zenean, bere proiektuaren helburua azaltzeko esaten zuen "jardunari pentsamendua lotzen zaiola", eta horregatik aukeratu zuen greziar jainkoaren izena bere argitalpenaren izenbururako, "ideien mezulari hegalduna, elokuentziaren jagolea" zela gogoan izanik. 1917 eta 1922 bitartean 'Hermes' hura abentura zoragarria izan zen eta, besteak beste, Zuluagaren, Artetaren, Regoyosen, Zubiaurretarren eta Urzelairen lanak eta Unamuno, Baroja, Maeztu eta Ortega y Gasseten saiakerak jaso zituen bere orrialdeetan. Gure Herriko eta gure mugetatik kanpoko intelektualik eta artista plastikorik emankor eta bikainenek topagunea eta adierazpidea aurkitu zuten Hermes aldizkariaren orrialdeetan. 2001etik aurrera, Sabino Arana Fundazioak, antzeko asmo eta izpirituarekin, aldizkari hau argitaratu du eta, seguruenik, Euskadin pentsamendu askotariko eta irekienak eskaintzen dituen ekimena da gaur egun. Oraingo honetan, neroni

dagokit "Hermes" aldizkariaren zenbaki berezi honen hitzaurrea egitea, bere orrialdeetan oso eduki berezia baitakar-kigu.

Aski ezaguna da 2020 urte hau, beste hainbat arrazoiengatik -eta benetan espero dut pandemia bedeinkatu honengatik soilik ez izatea- Euzko Alderdi Jeltzalearen historian urrezko letrekin idazteko urtea izateko sortu zela, Alderdi honen 125. urteurrenara iritsi garelako. Politikoki eta sozialki antolatutako sentimendu abertzalearen entitaterik antzinakoena denari aurtien zegokion ospakizunak antolatzea -neurri batean bertan behera utzi behar izan direnak- eta halako aukera hau baliatzea "jarduna eta pentsamendua" bateratzeko eta bere ibilbide orria berrikusteko, gaur egungo gizarteari begiratzeko, bere barrura begiratu baino lehen eta Herri honetako jendeekin bestelako harreman berri bat sortarazteko. Forondan esan genuen Alderdi Eguna ospatu ezin izan genuen egun hartan: Jendearen Alderdia izan nahi dugu, jendearen

begietatik ikusten duena, kaletik dabilen jendeak arnasten duen aire berbera arnasten duena.

Gaurko gizarteari begiratzeko modu hoiberik ez dago bere begi-ninietatik begiratzea baino. Behar bada, horixe izango da prozesu horren ezaugarri nabarmenena. Alderdiak ez die bere `pentsalariei' edo adituei eskatu orainaz eta etorkizunaz hausnartzen has daitezela, ezta euskal gizarteak gure erakundearengandik espero duena interpreta dezatela ere. Gizarte honi ez genion begiratu nahi gure alderdikide itzaltsu eta adituen begietatik, gizartearen beraren interpretazioa nahi genuelako, gizarteak berak esan zezan zer nahi duen eta EAJ-PNVrengandik zer espero duen. Horregatik, hogeita hamar bat pertsonari deitu genien, gaur egungo Euskadi osatzen duten pertsonen ordezkari zabal eta anitzari deitu genion. Azken hilabete hauetan sare-lana egin dute eta horren emaitza da ondorengo orrialdeetan aletuta aurkezten zaizkizuenak. Pertsona horietako bakar bat ere ez da gure Alderdikoa, baina denek dute konpromiso irmo eta ukazina Aberri honekin. Ordainetan, honen bidez bihoakie gure aintzatespenik zintzoena eskaini duten hausnarketa eskuzabal eta mamitsuagatik.

Pertsona horietako askok eskatu diguten anonimotasuna errespetatuz, `Hermes' zenbaki honetan eskaintzen dugu beren lanaren emaitza. Azterketa zorrotzak, proposamen probokatzaila eta askotarikoak, gurea moduko alderdi instituzionalaren ikuspegiaren beste aldean dagoen ikuspuntutik eginiko begiradak. Garenari eta izan behar dugunari buruzko ekarpen eskerga eta kualitatiboa. Gure nortasunari buruzkoa, gure bideragarritasun sozial eta ekonomikoari buruzkoa eta bizitzeko ditugun beharrezkoak. Agiri honetan jasotzen diren hainbat gauza eta proposamen muga abertzaleen gairi koka genitzake, beste batzuk gure ideariotik kanpo

daude argi eta garbi, baita EAJk azken berrogei urteotan eraman duen praktikatik ere. Hainbat proposamen ikusita, gure ordezkari asko asaldatu egingo dira eta galdetuko dute: "Eta hori, nola egiten da eta nola ordaintzen da?". Bada, horixe da hain zuzen talde-lan honen baliorik nagusia: probokazio argia diren hausnarketa eta proposamenen aurrean jartzea. Aitortzen dugu erroka bat dela aurreikusgarri jotzen den Alderdiarentzat, bere oinarriak sendo eta ia aldaezin jotzen dituenarentzat.

Baina, barneratzeaz gain eta ahalik eta probetxurik handiena ateratzeaz gain, hausnarketa horiek euskal gizarte osoarekin partekatu nahi ditugu. Horregatik, Sabino Arana Fundazioari eskatu diogu horren izen ona duen tribuna hau uztea hausnarketa prozesu hau gizarte osoari aurkezteko. Hiru dira agiriak: "XXI. mendeko euskal emakume eta gizonak". "Euskadi 2045: Gure lehiakortasuna hobetzeko gakoak gizarte ongizatea bermatzera begira" eta "Gizarte kohe-sioa Euskadiren etorkizunerako".

Jatorrizko `Hermes' hura izan zen Espainiako estatu osoan Rabindranath Tagoreren idazkiak lehen aldiz argitaratu zituen aldizkaria. "Aberria ez da lurra. Hala ere, lurra elikatzen dituen pertsonak aberria egiten dute" esan zuen bengaliar poetak. Hori da, hain zuzen, guk `Hermes' aldizkari honen zenbaki honekin bilatzen duguna, ehun urte beranduago Herri honetako jendea elikatzen jarraitzen baitu, gero eta aberri askeagoa eta bidezkoagoa eraiki dezaten.

**ANDONI ORTUZAR**

EUZKADI BURU BATZARRAREN PRESIDENTEA